

**2019KO URRIAREN 31N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamaika.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hemeretzi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- MADDI IMAZ RUIZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ETORRI GABEA: EDORTA DIAZ DEL RIO

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du. AITZIBER YURREBASO andrea bat-bateko itzultzaile lanetan egon da.

1.- AURREKO AKTAK. 2019-09-26ko eta 2029-10-10eko akten onespena.

2019-09-26ko eta 2029-10-10eko aktak aho batez onartu dira beraiekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- **HITZARMENA:** BEASAINGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA. (2019PEBO0098).

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz, Hernani, Lasarte-Oria eta Oiartzungo Udalek osatutako kontsortzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebus txartelaren bidez, Lurraldebuseko hiriarteko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatze bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarreragingarria da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko

Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurraldebus txartelak hiriarteko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundu zuen nabarmen.

Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurralde Historikoko garraio bide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraio bide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lurraldeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu zuen. Horrela, 2012an, lurraldeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Errenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurraldeko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko Lankidetzaren Protokolo Orokor bat sinatu zuen.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetzaren esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio bide guztietan sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko litzatekeela, garraio bide guztietan komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integratzeko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integratzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integratzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zizkion.

IV.- Egun, taldeentzako 180.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLAren egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerritan erroldatuta daudela.

V.- GGLAren helburu nagusien artean dago erakundearteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz,

eta bestetik, erabiltzaileei eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, lan administratiboak sinplifikatuz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLAk ulertzen dute egokia dela GGLAk taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituen.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzea errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

VI.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.

Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

VIII- Aurrekoa ikusita, 2014ko abendua eta 2015eko maiatza bitartean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Gipuzkoako udalekin hitzarmen bana sinatu zuen izaera pertsonaleko datuen lagapenaren arloan.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 49. artikuluan, hitzarmenek barnean hartu beharko dituzten gaiak zehazten ditu; horien artean hitzarmena aldatzeko araubidea xehatzen da.

Egungo hitzarmenean ez da hitzarmena aldatzeko araubidearen ingurukorik adierazten. Hortaz, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriko lehen atalean zehazten da hitzarmen guztiak legean aurreikusi denari egokitu beharko zaizkiola hiru urteko epean, legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta.

Kontuan hartuta egungo hitzarmenaren klausulak araubide juridiko berrira eta hitzarmenen gehieneko iraupenera egokitu behar direla, egokitzat jotzen da

hitzarmena amaitutzat ematea elkarren arteko adostasunez, eta beste hitzarmen bat sinatzea.

PROPOSAMEN AKORDIOA

Gipuzkoako Garraio Agintaritzak egiten duen egungo hitzarmenaren klausulak araubide juridiko berrira eta hitzarmenen gehieneko iraupenera egokitzeko eskaera azterturik, Antolakuntza Batzordeak ondorengo akordio proposamena egiten dio udalbatzari :

Lehenengoa- *2014ko azaroaren 20an Batzar Orokorrean onestutako egungo hitzarmena amaitutzat ematea.*

Bigarrena: *Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren artean udal erroldaren datuak egiaztatzeko hitzarmena berria sinatzea.*

Bigarrena- *Alkateari baimendu Beasaingo Udalaren izenean lankidetzat hitzarmena sinatzeko."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dira:

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Gu printzipioz ados gaude planteamendu honek herritarrentzat onura dakarrelako. Sinatzeko proposatzen den hitzarmen honen 6. puntuan jarraipen batzordea aipatzen da, baina zehaztu gabeko puntua dela esango nuke. Hobetu daitekeela iruditzen zaigu, esaldi orokorrak idatzita daudelako."

Besterik gabe, bozketa eginda, aho batez onartu da ondorengo hitzarmenaren testua:

UDALAREN ETA GIPIIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA

Donostia, 2019ko azaroaren ____an.

BILDUTA

Batetik, Antonio Aiz Salazar jauna, GIPIIZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN Lehendakaria. (aurrerantzean, GGLA).

Ondorio hauetarako berriazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2019ko irailaren 24an egindako GGLAREN Ohiko Batzar Orokorrean onartutako erabakiaren bidez emana.

Bestetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna alkate gisa, BEASAINGO UDALAREN (aurrerantzean Udala) izenean eta ordezkapenean.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2019ko ekainaren 15eko udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez emana.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote gaitasun nahikoa hitzarmen hau izenpetzeko, Administrazioen arteko koordinazio, lankidetzeta eta elkarrekiko errespetuaren printzipioei jarraituz, eta horretarako ondorengo azalpen eta klausulak hitzartu dituzte:

AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz, Hernani, Lasarte-Oria eta Oiartzungo Udalek osatutako kontsortzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebus txartelaren bidez, Lurraldebuseko hiriarteko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatze bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarrengingarria da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurraldebus txartelak hiriarteko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundu zuen nabarmen.

Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurralde Historikoko garraibide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraibide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lurraldeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu zuen. Horrela, 2012an, lurraldeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Errenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurraldeko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko Lankidetzeta Protokolo Orokor bat sinatu zuen.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetzeta esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraibide guztietan sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko litzatekeela, garraibide guztietan komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integratzeko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integratzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integratzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zizkion.

IV.- Egun, taldeentzako 180.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLAK egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatuta daudela.

V.- GGLAren helburu nagusien artean dago erakundearteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz, eta bestetik, erabiltzaileei eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, lan administratiboak sinplifikatuz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLAK ulertzen dute egokia dela GGLAK taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituen.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzeko errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

VI.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.

Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

VIII- Aurrekoa ikusita, 2014ko abendua eta 2015eko maiatza bitartean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Gipuzkoako udalekin hitzarmen bana sinatu zuen izaera pertsonaleko datuen lagapenaren arloan.

40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 49. artikuluan, hitzarmenek barnean hartu beharko dituzten gaiak zehazten ditu; horien artean hitzarmena aldatzeko araubidea xehatzen da.

Egungo hitzarmenean ez da hitzarmena aldatzeko araubidearen ingurukorik adierazten. Hortaz, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriko lehen atalean zehazten da hitzarmen guztiak legean aurreikusi denari egokitu beharko zaizkiola hiru urteko epean, legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta.

Kontuan hartuta egungo hitzarmenaren klausulak araubide juridiko berrira eta hitzarmenen gehieneko iraupenera egokitu behar direla, egokituz jotzen da hitzarmena amaitutzat ematea elkarren arteko adostasunez, eta beste hitzarmen bat sinatzea.

Horrenbestez, bi aldeek hitzarmena sinatzea adostu dute honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da GGLAk MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldatuta egotea beharraren eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAk mantendu behar duen konkidentzialtasun esparrua ezartzea ere.

Bigarrena.- Izaera pertsonaleko datuen trataera eta konkidentzialtasuna.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza aitortzen du badakiela jaso dezakeen informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioa, isilpekoa dela eta, horregatik, bere ardurapean, betekizun hauek beteko ditu:

- Informazioa lehenengo klausulan aipaturiko xederako erabiliko du, hirugarrenei informazioa emateko ahalmenik gabe.
- Dagozkion betebeharrak guztiak beteko ditu, betiere datu pertsonalen babesa eta informazioaren segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia zorrotz errespetatuz.
- Ez die informazioa hirugarren pertsonari jakinarazi edo ezagutaraziko, ezta informazioa gordetzeko ere.
- Bere eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoa duten langileei bakarrik jakinaraziko die informazioa. Bere ardura izango da isilpeko betebeharrak betearazteko beharrezko neurriak hartzea.
- Bai Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza, baita bere langile guztiak ere, atal honetan ezartzen diren isilpeko betebeharraren eta sekretu profesionalaren menpe izango dira

Hirugarrena.- Segurtasun neurriak.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza jaso dezakeen informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioaren konfidentzialtasuna zaintze aldera eta betiere, datuen segurtasuna bermatu, hauek aldatu, galdu edo baimendu gabeko inori iritsi ez dakion, beharrezkoak diren neurri teknikoak nahiz antolaketa-neurriak ezartzeko konpromisoa adierazten du.

Lauugarrena.- Aplikagarri diren printzipioak.

Hitzarmen hau betetzeko ondoko printzipio eta arauak bete behar dira:

- 1.- Datuak funtzio eta eskumenetara egokitzea.
- 2.- Eskaturiko datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.
- 3.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
- 4.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.
- 5.- Datuak transferiezinak izatea.

Edonola ere, datuetan sartzeko erabiltzailearen baimena lortu beharko du aurretik. Lortutako baimen hori dagokion espedientean jasota geratuko da. Honen inguruan, hitzarmeneko bigarren klausula ezarritakoaren arabera jardungo da.

Bosgarrena.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak soil-soilik GGLaren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzeraz mugatuko dira.

Horrela, hitzarmen honetan deskribatutako taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatutako daudela egiaztatuko da.

Hitzarmenaren xedea burutzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, adierazi behar da soil-soilik sistema informatikoak erabiliko direla, SFTP, FTPS edo SSL, esaterako. Dena den, sistema horiek, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.

Seigarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen hau sinatzen dutenak, unean-unean ezarritako ordezkari sistema bitartez, jarraipen batzordean bilduko dira egoki iritzitako maiztasun eta inguruabarrak ematen direnean. Batzordearen funtzioak honako hauek izango dira: hitzarmenaren aplikazioak eragiten dituen arazo ezberdinak aztertzea, informazio lagapen berriak sistematizatu eta automatizatzeko egokiera aztertzea, eta proposatutako eskaera nahiz beharren arabera eta beharrezko baliabideen balorazioa eginda, kasu bakoitzarentzat egokiena den prozedura eta garapen informatikoa adostea.

Zazpigarrena.- Ez betetzeak.

Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeak, edota, oro har, isilpean gordetzeko obligazioa urratzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilen kaltetan gabe, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutakoari) dagozkion funtzioez gain, aldeetako batek, hitzarmen honetan jasotako edozein baldintza ez betetzeak, besteari gaitasuna emango dio bat-batean eta zuzenbide osoz hitzarmena indargabetzeko.

Arrazoia edozein izanda ere, hitzarmena behin indargabetuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza berehala hitzarmena gauzatzeko iritsi zaion informazio guztia, edozein euskarritan egonda ere, itzuli beharko du.

Aipatu informazioa itzuli arte, berau behar bezala gordetzeko erantzukizuna izango du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzak.

Zortzigarrena.- Erantzukizuna.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzak, berak edota informaziora sarbidea duen langileriak, hitzarmen honetan ezartzen den edozein betebeharrak betetzen ez badute sor daitezkeen kalte-galera guztien erantzukizuna izango du.

Bederatzigarrena.- Lege Araubidea

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak Atariko Tituluko VI. Kapituluaren xedatutakoarekin bat.

Hamargarrena.- Ondorioak, aldaketak eta iraungipena

1.Hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak, eta lau urtez egongo da indarrean. Epe hori bukatu aurreko edozein unetan, akordioaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, gehienez beste lau urterako.

2.Hitzarmenaren aldaketa bi aldeek adostasunarekin burutuko da, Jarraipen Batzordeak hala proposatuta; horretarako, Hitzarmenaren indarraldian zehar aldaketa gehigarriaren harpidetza taxutu beharko da.

3. Hitzarmena iraungi ahal izango da:

a) Indarraldia igaro eta hitzarmenaren luzapena oraindik erabaki gabe egoteagatik.

b) Aldeek aho batez hala adosteagatik.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.

d) Epailak hitzarmena deusez deklaratzegatik.

Testu honetan eratzten den Jarraipen Batzordeak izango du eskumena hitzarmenean jasotako betebeharrak eta konpromisoen inguruan bi aldeetako edozeinek salatzen dituen ez-betetzeen berri izateko eta horiek baloratzeko.

4. Lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko informazio lagapena orain arte beste tresnaren batek arautu badu, hitzarmen honek tresna hori ordeztuko du. Dena den, ulertuko da tresna horrek baimendutako lagapenak indarrean daudela eta hitzarmen honek babestu eta arautzen dituela, eta bidezko eranskinen bitartez gehituko zaizkio hitzarmenari.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren iraupena.

1.- Hitzarmen hau izenpetzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urte iraungo du. Hala ere, beste lau urtez luzatu daiteke, bi aldeek idatziz hala erabakitzen badute.

2.- Iraupenari buruz erabakitakoa gorabehera, bi aldeetako edozeinek alde bakarrez suntsiarazi dezake hitzarmena, hura bukatu baino bi hilabete lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazita.

Ados daudela adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasotzeko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

ERANSKINA.- GIPUZKOAKO UDALERRI BATEAN ERROLDATURIK EGOTEKO BETEKIZUNAREN EGIAZTAPENA

Deskribapena: MUGI talde berezien txartelen eskatzaile eta onuradunak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldaturik egotearen betekizunaren egiaztapena.

1.-Helburua: MUGI talde berezien garraio publikoko txartela eskuratu nahi duten erabiltzaileak Gipuzkoako Udalerriren batean erroldaturik daudela egiaztatzea. Aitatu baldintza ezinbestekoa da talde berezien txartelaren titularra izan eta zenbait hobari eskuratzeko eskubidea izateko.

MUGI sistema 2014ko martxoaren 4an indarrean sartu zen tarifa bateratuko sistema da, Gipuzkoako garraio bide guztietan aplikatzen dena.

Sistemaren euskarria MUGI txartela da, pertsonala eta besteren ezina dena.

Tarifa hobaridunetarako eskubidea duten taldeak hauek dira:

Gazteak, Adinekoak, Ezinduak, Soziala eta Familia Ugariak.

Taldeentzako MUGI txartelak bere titularra Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen du.

ARAU OINARRIA

Aipatu alorrean GIPUZKOAKO GARRARIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAK dauzkan eskumenak arau hauek egozten dizkiote:

- 6/2007 FORU ARAUA, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituenak.
- ATTG-GGLA erakudearen eraketa akordioa.

- ATTG-GGLA erakundearen Estatutuak.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan Tarifa Sistema Integratua ezartzeko lankidetzarako protokolo orokorra.
- Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos, S.A., Renfe, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia/San Sebastián, Zarautz, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria, Eibar, Lasarte-Oria eta Oiartzungo Udalekin egindako hitzarmenak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa sistema integratua ezarri ahal izateko.
- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzarraren erabakiak (2012ko azaroaren 5 eta 15ekoak, 2013ko otsailaren 6 eta 14koak; 2013ko abenduaren 9koa eta 2019ko otsailaren 14koa).

1.- Interesdunaren baimenik eskatzen al da?

Bai. Berariazko baimena eskatzen da txartel berriak eta txartela berritzeko eskaera inprimakian. Inprimaki horretan, baimenari buruzko klausula agertzen da.

2.- Informazioaren edukia: Gipuzkoako Udalerriren batean erroldatuta egotearen betekizuna betetzen duela soilik jakitea.

Zentzu honetan, erabiltzailearen aurretiko baimenarekin eta GGLAren aldetik MUGI talde berezien eskatzailearen datuak identifikatzeko beharrezkoak diren datu minimoak (NAN eta izen-abizenak) bidalita, eskatuko den datu bakarra, Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotearen betebeharra betetzen den edo ez jakitea izango da.

3.- Egiaztapena burutzeko prozedura:

Baliabide telematikoen bitartez burutuko da, hauek bere aldetik, komunikazio seguruak bermatuko dituztelarik, bai eta datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna ere.

4.- Aldizkotasuna: Kotsultak egunero burutuko dira.

5.- GGLAn baimendutako pertsonak:

Klara Olasagasti García, NAN 15258049X, Gestio orokorreko teknikaria

Jon Andoni Urdangarin Urrutia, DNI 72523695A, Gestio orokorreko teknikaria.

6.- Solaskideak:

- *Gai juridikoetarako*: GGLAko Zerbitzu Juridikoa

Esther Etxeberria; etxeberria@atgipuzkoa.eus 943.00.59.59

- *Gai teknikoetarako: GGLAko Planifikazio teknikaria*

Jakot Karrera jkarrera@atgipuzkoa.eus 943.00.59.59

Alde biek eranskin honetan jasotako datuak eguneratzeko konpromisoa hartzen dute.”

- **TAXIAK:** TAXI-ZERBITZUAREN 2020 TARIFAK. (2019EKBO0078)

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

“(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2020 urterako tarifen onespena eskatu du.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Antolakutnza Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:

Lehenik.- *Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onspena.*

Bigarren.- *Goierriko eskualdeko eremuan aplikagarri izango diren Agitaxek Goiekiren bidez proposatutako 2020rako ondorengo tarifen onspena, indarrean daudenekiko % 0,8ko igoerarekin.*

2020ko HIRI BARRUKO TARIFA			
	Abiasaria	Ibilitako kilometroa	Itxarote ordua
Tarifa 1*	3,6237 €	1,1344 €	21,6681 €
Tarifa 2**	3,6237 €	1,8093 €	34,0552 €

* **Lanegunetan 07:00tik 22:00arte / Laborables:** de 07:00 a 22:00

** **Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan / Esta tarifa será aplicable todos los días, desde las 22:00 horas hasta las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.**

Hirugarren.- *Goiekiri akordio honen berri ematea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Hemen ere matizazio pare bat, nahiz eta gure botoa aldekoa izan. Kezka sortu zaigu ikusita udalerrien arteko hitzarmena 2003koa dela. 2003an sinatu zenean bi urterako sinatu zen luzatzeko aukerarekin baina iruditzen zaigu hainbeste urte pasatuta gero eguneraketa bat

beharko lukeela. 7. puntuaren azaltzen diren behar izanetan (24 orduko zerbitzua, mugikortasun berezia dutenen beharrak, telefonoa, etb...), denok dakigu gizartean izandako aldaketan ondorioz, puntu honek ere eguneraketa bat beharko lukeela. 10. puntuarekiko, idazkariak ere bere txostenean aipamen bat egiten du. Hitzarmen honetan adostu zen eskualdeko jarraipen batzordea sortzea eta txostenean aipatzen denez ez dago dokumenturik hori burutu zenik egiaztatzen duena. Beasaingo udalari dagokion neurrian, eskatuko gurek gaiari heltzeko eta taxien inguruan dauden behar eta tarifak identifikatuko duen gune hori eskualde mailan sortzeko ahaleginak egiteko, are gehiago hitzarmenean zehaztuta dagoenean zeintzuk eratu beharko luketen. Definituta dago baina ez dakigu egikaritu zen edo ez.”

Alkate jaunak: (EAJ-PNV): “Egikaritze hori eman zen eta egia da niri tokatu zaiela horrelako mahai batean egotea aldaketa nabarmenak izan direnean. Telefonoa oso gerora jarri zen, ez da denbora asko telefono bakarrera deitua edozeinek eman dezakeela zerbitzu hori. Ni egondako mahaiaren ezinduentzako lizentzi bati buruz hitz egin zen. Ez dago maiztasun bat ezarrita mahai biltzeko, zeren eta oinarriak direnak dira eta aldatzen dena prezioa da. Maiztasuna eskatzea aldaketarik ez egonda...!. Goeikin EH Bilduren ordezkariak dago eta hura da mahai horrelako gauzei irtenbidea emateko. Dena dela ez dago soberan eskatzen dena eta han aipatuko da.”

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Kontuan izanda pasatu diren urteak, uste dugu hitzarmen horrek eguneraketa bat behar duela. Udal gobernari konpromiso hori eskatzea, besterik ez.”

Alkate jaunak: (EAJ-PNV): “Ados. Bai”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- **ORDENANTZA:** ETXEBIZITZETARAKO HIRI-LURZORUAN FINKATUTAKO EREMU JAKIN BATZUETAN DAUDEN ARETOEN ERABILERA HIRUGARREN SEKTOREKOA IZATETIK ETXEBIZITZETARAKO IZATERA ALDATZEKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ERREBISIOA. HASIERAKO ONESPENA. (2019HIBO0042)

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2019-03-27. Alkatearen probidentzia, aipatutako ordenantza errebisatu ahal izateko behar diren izapideak egiteko agindua emanez. Errebisioa arrazoitzen duten arrazoiak hauek dira:

- *2007ko ordenantzak dioena betetzea, errebisatzeko beharrari buruz 5 urtek iraunaldia igaro ondoren.*
- *Erabilera aldaketa izateko aukera duten lokalen zerrenda handitzea.*
- *Erabilera aldaketatik sortzen diren etxebizitzak alokairuan emateko aukera izatea.*
- *Esleipen prozedura arintzea.*

2.- 2019-03-28. Araudia egin aurreko kontsulta, Udalaren Web orriaren bitartez adieraziz iradokizunak egiteko epea (2019-04-29) eta aurkezteko modua (posta elektronikoa edo aurrez aurre lgunean).

3.- 2019-04-25. Posta elektronikoaren bidez aurkeztutako Iradokizunak:

- Nikolas Barandiaran Contreras, Lierni Gorjón Juzgadoreen orde.
- Julen Agirre

4.- 2019-07-09. Erregistro sarreraren bidez, Miguel Angel Ramirez Araña eta M^a Laura Ramirez Araña, epez kanpo aurkeztutak iradokizunak.

5.- Aurkeztutako ordena jarraituz iradokizunen edukia:

- Bizigarritasun baldintzak abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren (ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa), araberakoak izatea eskatzen du eta ez babes ofizialeko etxebizitzetarako arauen araberakoak.
- - Etxebideen inskribatuta egoteak zaildu egiten du etxearen salmenta.
 - Libreak izatea proposatzen du, merkatuak berak, erregulatzen dituelako prezioak.
 - Tasatu kalifikazioa izatea bakarrik 10 urteetarako.
 - Alokairuaren portzentaia handiagoa izatea.
- Igartetxe, 2 behean dagoen lokalak aukera izatea erabilera aldaketarako.

6.- 2019-05-13. Lehenengo eta hirugarren iradokizunei buruzko txosten teknikoa. Ez onartzea proposatzen du, arrazoi hauengatik:

Lehenengo iradokizuna: "Indarrean dauden Beasaingo Arau Subsidiarioen Arauetako 54. artikulua ezartzen du "honako Arau Subsidiario hauen babespean eraikitzen diren bizitegi erabilerarako eraikinek indarrean dagoen erregimen orokorrak eskatzen dituen baldintza orokorrak bete beharko dituzte. Halaber, osagarri gisa aplikatuko dira Babes Ofizialeko Etxebizitzak arautzen dituzten arauetan edo horien orde ematen direnetan dauden gaiari buruzko xedapenak." Beraz, ulergaitza dirudi zorrotasun gutxiago duen araudia ezartzea beraien erabilera etxebizitzara aldatuko duten aretoetan, jakinda udal-mugarte berdinean dauden bizitokietan egin behar diren gainerako jarduketetan ezarri behar dena bestelakoa bada.

Gainera, 317/2002 Dekretuak ezartzen dituen bizigarritasun-baldintzak BOEtako arau erregulatuak ezartzen dituztenak baino zorrotasun gutxiagokoak dira, bestela, bizigarritasun eta osasungarritasun-baldintzak hobetzeko hirigune historikoetan dauden etxebizitzetan proposatutako jarduketa asko ez lirateke teknikoki bideragarriak izango eta bizitokiak erabilera gabe geratuko lirateke. Kasuistika hori berrikusten ari den Ordenantzari ez dagokio ekitea.

Hirugarren iradokizuna: “Egungo ordenantzan lokal hori azaltzen ez bada ere, ordenantza aplikatu diezaieken eraikinen zerrendan (I Eranskina), ordenantzaren berrikuntzaren proposamenean eta berarekin doan planoan, hain zuzen ere, Web orrian argitaratutakoak aurretiazko kontsulta egiteko, Igartetxe, 2 eraikina sartuta dago B zonaldean: erabilera aldatzeko aukera behe solairuetan eta solairuarteetan.”

7.- 2019-10-18. Idazkaritzako txostena, proposamen ezberdinak jasotzen dituen bigarren iradokizunari buruz, hau da:

- Etxebideen inskribatuta egoteak zaildu egiten du etxearen salmenta.

Honi buruz esan, Udalak ez duela etxebizitza tasatuaren ordenantza arautzailerik. Horren faltan, erabaki zen “erabilera aldaketatik”, sortutako etxebizitzari etxebizitza tasatu autonomikoen erregulazio berdina ezartzea. Hori da, hain zuzen ere, arrazoia Etxebiden inskribatuta egotearena, izan ere, horrek balio du, aldi berean, egiaztatzeko balizko eskatzaileek baldintzak betetzen dituzten esleipendunak izateko.

- Libreak izatea proposatzen du, merkatuak berak, erregulatzen dituelako prezioak.

Oportunitateko gaia denez, sinatzen duenari ez dagokio horren erantzuna ematea.

- Tasatu kalifikazioa izatea bakarrik 10 urteetarako.

Proposamen hau aurrekoari lotuta dago.

- Alokairuaren portzentajea handiagoa izatea.

Honi buruz esan ordenantza-zirriborroaren zioen azalpenean adierazten dela etxebizitza tasatuaren neurketarekin bat datorren prezioa ezarri dela. Portzentaje hori gehitzeak mesede egingo lioke bakarrik jabeari eta ez etxebizitza hori erabili nahi dutenei. Horrekin, alokairuan etxebizitza bat izateko aukera zailduz gain, Udalak prezio horien garestiak izatea lagunduko luke, ordenantzaren espirtua urratuz.

Dena dela, batzordeak bere iritzi hobetoarekin erabakia hartuko du eta horren arabera idatziko da ordenantza berriaren testua.

8.- Batzordeak, 2019-10-24an egindako bileran, kontuan izanda:

- Beasainen 6.444 etxebizitzetatik 982 etxe daude hutsik. Etxebizitza-parkearen %15a.
- 2007tik 2019ra erabilera aldaketa eskatutakoak 22 inguru dira (batzuk prozedura amaitu gabe dute). Batz besteko urtean, 2.
- Hainbat udalerrietan kontsultatu ondoren ordenantzak jakiteko erabilera aldaketatik sortutako etxebizitzaren kalifikazioa, gaur egun, mantendu egiten dute tasatuarena. Beste udalerrri batzuek, prezioa mugatu egiten dute.

Irizten du etxebizitzek kalifikazio tasatu iraunkorra mantendu behar dutela, Ordenantzaren helburua ez delako etxebizitza kopuru handiagoa merkatura ateratzea, baizik eta bertan eskaintzaren diren prezioak kontrolatzea eta “erabilera aldaketatik” sortzen diren etxebizitza berriek balio izatea etxebizitza politika publiko bat garatzeko.

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio adieraziz, erabakia hartzeko nahikoa dela gehiengo soileko quoruma:

Lehenik. Aurkeztutako iradokizunak, 2019-10-21eko tekniko eta idazkaritzako txostenen eta 2019-10-24ko batzorde informatzailearen irizpidearen arabera ebatzea.

Bigarren. Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren errebisioari hasierako onespena ematea, honekin batera doan testuaren arabera.

Hirugarren. 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea, GAOean eta Udalaren web orrian iragarkiak argitaratuz, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako alegaziorik aurkezten, Ordenantza behin betiko onartua geratuko da.

Lauugarren. Ordenantzaren hasierako onspen testua Udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

Bosgarren. Erabaki honen berri ematea aurretiazko kontsulta publikoari iradokizunak aurkeztu zituenei, adieraziz hasierako onspen testuarekiko alegazioak aurkeztu ditzaketela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor andreak ((Beasaingo EH Bildu): “Batzordean azaldu ziren xehetasun batzuk eta jakin nahi dugu nola geratu diren, adibidez Etxebiden inskribatuta egotearena, tasatuaren kalifikazio behin betikoa izatea eta alokairua %3a izatearean.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV), esan du bere horretan jarraitzen duela ordenantzak eta xehetasun horiek aurreikusi direla. Babes ofizialekoei ematen zaien trataera mantenduko dugu. Ikusi egin behar izandako iradokizunak alegazio bihurtzen diren.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hori kontuan izanda ere, etxebizitza politika duin bateko iritzikoak gara. Ahal den neurrian etxebizitza eskuratzeko zailtasuna dutenei aukerak emate aldera. Orduan, etxebizitza hauen prozedurako lehenengo puntutakoa da Udalari etxebizitza eskaintzea saldu nahi denean. Beraz gure proposamena hori da hain zuzen ere, ahal den neurrian gobernu honek bere gain konpromisoa hartzea etxebizitza horiek eskuratzeko eta irtenbidea ematea benetan zailtasunek dituztenei.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Neurri batzuk hartuta daude horretarako, hau da, Etxebiden apuntatuta egon behar da, horretarako Etxebizitza Sailak marra batzuk jarrita ditu iritsi ezin dutenentzako. Iruditzen zaigu horregatik mantendu behar dela tasatuena. Bide batez horrek dakar prozedura arintzea.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Udalak horiek eskuratuta beste politika bat egin daiteke, adib., alokairu sozialak edo emergentzizko etxebizitzaren kopurua gehitu, edo...”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Udalak erostea esaten duzu?. Beno baina hori, beste gauza bat da. Zenbat lokalen jabe egin behar dugu?”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Beno agian, beharra dagoela sumatzen delako. Iruditzen zaigu etxebizitza politika definitzea dela.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bai, erraztasunak ematea baino nik uste dut 22 lokal itxita zeudenak eta zeuden egoeran egonda, martxan jartzea lortu bada, merezi du era honetan funtzionatzen jarraitzea.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai, gertatzen dena da benetan arazoei erantzuna ematen diogun edo ez, ez dakigula. Hori da gure zalantza. Aretoei irtenbidea ematea ondo dago, dudarik gabe, baina...”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Babestuak izatea ematen dizu berme hori, ez?. Beste gauza bat izango litzateke libre uztea. Babesekoa izatea, justu zuk aipatzen duzun sektore hori hartzen du. Diru sarreraren arabera egiten baitira zerrendak.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ordenantza hau behin betikoa denean zabaldu egin beharko litzateke jendeak jakinaren gainean egoteko. Hor gehienezko tasazio prezioa jartzen du eta horrek ere eragiten du jendeak atzera egitea. Agian aipatu egin beharko litzateke tasazio prezio hori gehienezkoa dela eta jabearekin adostea egongo dela, aukera izan dezakeenak baloratu dezan. Gu abstenitu egingo gara nahi genuelako udalaren konpromisoa etxebizitza horiek bereganatzeko saldu nahi direnean.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)
Etorri gabea: 1 (EAJ-PNV)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Aurkeztutako iradokizunak, 2019-10-21eko tekniko eta idazkaritzako txostenen eta 2019-10-24ko batzorde informatzailearen irizpidearen arabera ebatzea.

Bigarren. Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren errebisioari hasierako onespena ematea. Ordenantzaren edukia jarraian deskribatzen da.

Hirugarren. 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea, GAOean eta Udalaren web orrian iragarkiak argitaratuz, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez bada inolako alegaziorik aurkezten, Ordenantza behin betiko onartua geratuko da.

Laugarren. Ordenantzaren hasierako onespren testua Udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

Bosgarren. Erabaki honen berri ematea aurretiazko kontsulta publikoari iradokizunak aurkeztu zituenei, adieraziz hasierako onespren testuarekiko alegazioak aurkeztu ditzaketela.

ETXEBIZITZETARAKO HIRI-LURZORUAN FINKATUTAKO EREMU JAKIN BATZUETAN DAUDEN ARETOEN ERABILERA HIRUGARREN SEKTOREKOA IZATETIK ETXEBIZITZETARAKOA IZATERA ALDATZEKO JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ERREBISIOA

ZIOEN AZALPENA

I. 2007ko martxoaren 1eko bilkuran Udalbatza Osoak hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantza onartu zuen. Ordenantzaren testu osoa 2007ko urriaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2010eko uztailaren 9ko bilkuran (GAO 2010-09-13) Udalbatza Osoak Ordenantzaren 8. artikulua aldatzea erabaki zuen, aretoa eraldatzetik sortutako etxebizitzaren prezioa kalkulatzeari buruzkoa.

2011ko otsailaren 4ko bilkuran (GAO 2011-03-25) Udalbatza Osoak Ordenantzaren 8. artikulua bigarren aldaketa bat egitea erabaki zuen, prezioari eta esleipen prozedurari buruzkoa.

Azkenean, 2018ko martxoaren 27ko bilkuran (GAO 2018-04-09) Udalbatza Osoak Ordenantzaren errebisioa egitea onartu zuen hizkuntzari dagokionez, genero ikuspegitik, edukia aldatu gabe.

II. Ordenantzaren indarraldia bost (5) urtekoa izango zela ezarri zen, eta aipatu zen epe hori iragan ostean udalerriko etxebizitzaren arazoarekin loturiko xehetasunak berriro aztertzei ekingo ziola udalak eta, aretoen erabilera-aldaketaren esperientzia baloratu ondoren, Ordenantzak indarrean jarraitu behar zuen ala ez erabakiko zuela.

Zegokion ikerketa burutu aurretik I. Eranskinean txertatzeko esparru berriak ezarri zitezkeela adierazi zen (erabilera-aldaketarako baldintzak betetzen dituzten aretoen zerrenda).

Ikerketa hori gauzatu ondoren eta Ordenantzaren indarraldi epea gainditu ondoren, bere errebisioa egitea eta idazkera berri bat ematea egokia litzatekeela erabaki da.

III. Errebisioak honako xede eta irizpide tekniko hauei erantzuten die:

- Etxebizitzek kalifikazio tasatu iraunkorra izatea mantendu egiten da Ordenantzaren helburua ez delako, etxebizitza kopuru handiagoa merkatura ateratzea, baizik eta merkatuan dagoen etxebizitza eskaintzaren prezioak kontrolatzea, hain zuzen ere,

“*erabilera aldaketatik*” sortzen diren etxebizitza berriek, etxebizitza politika publiko bat garatzen lagundu dezake.

- Garapen jasangarriaren printzipioarekin bat, hirugarren sektoreko aretoak etxebizitzetara eraldatzearen ondorioz, Beasaingo ondare eraikiaren erabilera erreal eta eraginkorra sustatu nahi da. Dena den, aldaketa horiek bateragarriak izan beharko dira Beasainek tokiko merkataritza eskaintza izatearekin, udalerrarentzat garrantzitsua den ekonomia sektore baten jarraitutasuna bermatzeko eta kaleek eta espazio publikoek herritarrak elkartzeko eta harremanetan jartzeko leku natural bat eskaintzen duen bizimodua bermatzeko xedearekin.
- Helburu hori dela eta, handitu egin da erabilera aldatzeko aukera duten aretoen zerrenda (I. Eranskina), betiere Ordenantzaren 2. eta 3. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten heinean.
- Ondare eraiki hori erabiltzearen eta alokairuko etxebizitzaren eskaria aintzat hartuta, etxebizitza tasatuaren neurketarekin bat datorren prezioan alokatzeko aukera sortu da.
- Gainera, etxebizitzaren eskualdaketa gauzatzeko prozedura arindu da.
- Hirigintza-kargaren kontzeptua kendu egin da, izan ere, indarrean dauden arauen eta onartutako koefizienteen arabera, ezin zaio inolako kosturik egotzi.

Bestalde, paragrafo eta artikulua batzuk gehitu eta beste batzuk aldatu zaizkio Ordenantzari, gai batzuen alderdi teknikoak eta eraikuntzari buruzkoak argitzeko helburuarekin, batik bat.

IV. Amaitzeko, Azken Xedapena ere berrikusi egin da.

1. artikulua. Xedea.

Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzea da Ordenantza honen xedea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Ordenantza honen aplikazio-eremua, hain zuzen ere, etxebizitza eremu finkatuetan kokatuta eta I. Eranskinen eraikinen zerrendan sartuta dauden eraikinen hirugarren sektoreko erabileretarako edo beste batzuetarako bideratutako behe-solairuak eta behegainak izango dira.

a) A eremuan (merkataritza lehenesten den gunea) ezingo dira erabilera-aldaketak baimendu behe-solairuetan, soilik behegainetan baimenduko dira, eta betiere sarbidea eraikinen barruko zirkulazio elementu komunetatik egingo da. Ez da onartuko sarbidea kanpoaldetik egitea, eraikina bere jabetzako lur-eremuaz inguratuta egon arren.

b) B eremuan (ez da merkataritza lehenesten) erabilera-aldaketak baimendu ahalko dira bai behe-solairuetan eta baita behegainetan ere. Bi kasuetan, sarbidea eraikinaren barruko zirkulazio elementu komunetatik egingo da. Ez da onartuko sarbidea kanpoaldetik egitea, eraikina bere jabetzako lur-eremuaz inguratuta egon arren. Behe-solairuetan, sarbidea baimenduko da betiere erabilera-aldaketatik eratorritako etxebizitzari behar adinako intimitate maila bermatzen badio.

2. Behe-solairuaren eta behegainaren definizioa herriko hirigintza-arauetan jasotzen dena da.

3.- I Eranskineko lokalen zonakatzean adierazten da “erabileraren aldaketa”ren aukera eta horrek esan nahi du aldaketa hori gauzatu nahi izan ezker, aldeztatik kontsulta urbanistikoa egin behar dela.

4. Ordenantza honen aplikazio-eremutik eta, beraz, etxebizitza bihurtzeko aukera horretatik kanpo geratzen dira:

a) Sotoaren solairuan kokatutako aretoak.

b) Udalerri honetako hirigintza-arauetako definizioaren arabera erdisoto izaera duten aretoak. Edonola ere, puntu hori kasuz kasu aztertuko da.

c) Indarrean den hirigintzako plangintzaren arabera garaie/aparkaleku erabilera zehatza eta eraikin nagusiari erantsitako beste erabilera batzuk dituzten aretoak (trastelekuak, txokoak...).

d) Etxebizitzetako erabilera lortzeko baimena eskatzeko unean, bertan azken jarduera baimendua eten zenetik gutxienez hiru (3) urte igaro ez dituzten aretoak. Jarduera eteteko uneari dagokionean, udalari idatziz jakinarazi zaionean edo organo eskudunak jardueraren iraungitzea ebatzi duen unean emango da jarduera amaitutzat.

e) 2007tik indarrean diren Arau Subsidiarioak jarraituz eraikitako eraikinetan dauden aretoak.

f) Uraren Euskal Agentziaren arabera urpean gelditu daitezkeen eremuetan kokatutako beheko-solairuetako aretoak.

3. artikulua. Baldintza teknikoak.

Ordenantza honen xede diren aretoetan etxebizitzarako erabilera baimentzea honako baldintza tekniko hauek betetzeko edo bete ahal izateko baldintzapean dagoela ulertuko da.

3.1. Gutxieneko azalera erabilgarria:

Etxebizitzaren barruko gutxieneko azalera erabilgarria ezingo da 40 m² baino txikiagoa izan, esekitokia eta kanpoko espazio irekiak kontuan izan gabe (balkoiak, terrazak, eta abar).

3.2. Etxebizitzetarako sarbidea:

a) Guztienak diren barruko elementuetatik (bebarrutik edo eskaileratik) egingo da dagokion etxebizitzarako sarbidea.

b) Irisgarritasunaren alorrean ezarrita dauden aplikazio xedapenei egokitu beharko zaio.

c) Ordenantza honi jarraiki, beheko-solairuetan edo/eta behegainetan etxebizitzak ezartzeko udal-baimena honako hauei kalterik egin gabe emango da:

- Guztienak diren elementuetara sartzeko jatorrizko finkak izan ditzakeen bidezorrak, besteak beste, patioak, instalazioetarako bideak, eta abar.

- Jabeen Erkidegoaren baimenak guztien elementu berriak zabaltzeko, guztien espazioetako instalazioetarako eta abarrerako.

3.3. Bizigarritasun baldintzak:

A. Gutxieneko programa

Etxebizitzen gutxieneko programa sukaldeak, egongela-jangelak, logela bikoitzak eta gutxienez konketa, komuna eta dutxa dituen bainugela batek osatzen dute. Sukaldea eta egongela-jangela gela bakarrean bildu daitezke, eta egongela-sukalde-jangela deituko zaio.

Esekitokia eduki behar da, eta horretarako aukerarik izango ez balitz, arropa-lehorgailua ezarri beharko da nahitaez.

B. Etxebizitza osatzen duten gelen gutxieneko tamaina, gutxieneko altuera libre eta gelen banaketa:

Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzak onartzen dituen 2009ko otsailaren 12ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 7433/2002 Aginduak edo Agindu horren ordezkioak ezartzen dituen zehaztapenak beteko dira.

C. Ganbarak gauzatzeko baldintzak:

Ganbarak eraikitze baimena emango da baldin eta eratorritako gutxieneko altuera libreak 2,20m-koak badira korridore, bainugela eta trastelekuentzat eta 2,50m-koak badira sukalde/egongela/jangela/logela erabilerarentzat eta gainontzeko gelentzat.

Ganbara aretoaren eraikitako azalera osoaren % 40an ezarri ahalko da gehienez, eta ezingo da eraikinaren fatxada nagusira edo fatxada nagusietara iritsi (espazio publikoetara ematen duten fatxadak), horrekiko edo horiekiko gutxienez hiru (3) metroko distantzia izan beharko du; eraikinaren gainontzeko fatxadetara iritsi ahalko da, ordea.

Edozein erara, ganbara ezinbestean bere etxebizitzari lotuta egon beharko da fisikoki eta juridikoki, eta ganbararekiko sarbidea soilik etxebizitzaren barrutik ezarri ahalko da.

Aretoak lehendik ganbarak izango balitu, aurreikusitako etxebizitzaren esparruan horiek sendotu eta mantentzeko aurrez aipatutako baldintzak bete beharko lirateke. Baldintza horiek beteko ez balituzte egokitu egin beharko lirateke bete ditzaten edo kendu egin beharko lirateke.

D. Esekitokiak:

Esekitoki izateko eremuak, ahal izanez gero, etxebizitzaren kanpoaldean egingo dira, baina edonola ere, fatxadako azaleraren barrualdean, kanpotik ikusten ez direla bermatzeko moduan.

Beste guztiari dagokionean, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzak onartzen dituen 2009ko otsailaren 12ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 7433/2002 Aginduak edo Agindu horren ordezkioak ezartzen dituen zehaztapenak beteko dira.

Esekitokia jartzeko aukerarik izango ez balitz, arropa-lehorgailua ezarri beharko da. Baldintza hori ezinbestekoa izango da etxebizitzaren lehen erabilerarako baimena eman ahal izateko.

E. Argiztapen eta aireztapen baldintzak:

Egongela izango den gelak eta logeletako batek derrigorrez fatxada-bao bat edo etxadi-patiora ematen duen bao bat izan beharko dute.

Edozein erara, argiztapen eta aireztapen baldintzek dagokien indarreko legezko xedapenetan adierazitako zehaztapenak bete beharko dituzte, bereziki, Babes Ofizialeko Etxebizitzen Diseinurako Ordenantzak onartzen dituen 2009ko otsailaren 12ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 7433/2002 Aginduko eta Eraikuntzaren Kode Teknikoko zehaztapenak.

3.4. Ur beroa, berokuntza eta energia-hornidura sortzeko instalazioak:

Ur beroa eta berokuntza sortzeko sistemek keak edo gasak sortzen badituzte, teilaturaino kanporatzeko hodi egokiak daudenean edo jarri ahal direnean bakarrik onartu ahalko dira. Horrela ez bada, energia elektrikoa erabili beharko da hornigai gisa.

Etxebizitza kokatuta dagoen eraikinak kontagailu zentralizatuak izango balitu, lehendik zeudenen alloan ezarri beharko da kontagailua.

3.5. Osasungarritasun, isolamendu termiko eta hosgabetze baldintzak:

Etxebizitzek osasungarritasun, isolamendu termiko eta isolamendu akustikoaren alorrean aplikatu beharreko legezko xedapenek ezartzen dituzten neurriak bete beharko dituzte, batik bat, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren zehaztapenak.

Etxebizitza jardueraren bat garatzen duen areto baten alloan ezarri nahi bada, dagozkion neurriak erabiliz isolatu eta hosgabetu beharko da etxebizitza.

3.6. Pribatutasun eta segurtasun baldintza orokorrak:

Fatxada-baoei emango zaien tratamenduak etxebizitzaren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko du. Pertsianak, xaflak, burdin hesiak eta abar jartzea baimentzen da, baina bao beraren barruan ezarri beharko dira, kanpora atera gabe eta horien gainera igotzeko aukera eman gabe. Pertsianen kasuan, kutxa barrualdean izan beharko dute.

Behe-solairuetan, dagozkien irekiera edo/eta itxiera mekanismoetara zentzuzko sarbidea bermatzeko eta etxebizitzaren argiztapen eta aireztatze baldintzak optimizatzeko xedearekin, aipatutako baoen leiho-ertza ezingo da 1 metroko altueraren azpitik eta 1,40 metroko altueraren gainetik kokatuta egon, etxebizitza barruko lurzoru amaitutik neurtuta.

3.7. Fatxaden kanpoaldeko trataeraren baldintzak:

Etxebizitzaren fatxadaren trataera eraikinaren gainontzeko fatxaden trataerarekin bat etorri beharko da, baina baoak ez dira ezinbestean modu berean ezarri beharrik izango. Hori guztia, estatutu arautzaileek ezarritakoari kalterik egin gabe gauzatuko da.

Aurkezten den proiektuak grafikoki islatu eta egiaztatu beharko du, dagokion eraikinaren fatxada guztien eta horietako bakoitzaren kasuan, baldintza horiek betetzen dituela erakusten duen froga. Gainera, proiektuaren xede den eraikinaren argazki eguneratuak eraman beharko dira, aurreikusitako konposizioa eta proposatutako materialak justifikatzeari begira. Kasu guztietan justifikazio hori dagokion aretoa kokatzen den eraikinaren solairu osoaren edo solairu guztien gain egin beharko da.

Eraikin bereko areto baten baino gehiagoren erabilera-aldaketa gauzatu nahi den kasuetan, horien titulartasuna dena delakoa izanda ere, modu bateratuan aurreikusi eta justifikatu beharko da eraikinaren areto guztiak egokitzean kanpoaldeari emango zaion trataera. Ez dira inola ere onartuko kanpoaldearen banakako trataera proposamenak areto bakoitzarentzat.

Udalak aipatutako helburua bermatzeko beharrezko xedapenak onartu ahalko ditu.

4. artikulua. Etxebizitzaren erabilera baimentzeko forma eta prozedura baldintzak.

Ordenantza honek eragiten dien aretoetan etxebizitzarako erabilera ezartzeko aurrez erabilera-aldaketaren alorreko dagokion udal-baimena eta, dagokion kasuan, obretarako udal-baimena eskuratu beharko da ezinbestean.

4.1. Erabilera aldatzeko baimena:

Aretoaren jabeak erabilera-aldaketarako eskaera aurkeztu beharko du, onetsitako proiektu teknikoarekin batera. Proiektu hori paperean eta euskarri informatiko batean aurkeztu beharko da eta honako dokumentu hauek eduki beharko ditu barruan:

- Legezko xedapenetan, indarreko hirigintzako plangintzan eta Ordenantza honetan ezarritako aplikatu beharreko baldintza guztiak betetzen dituela dioen justifikazio-memoria.
- Honako plano hauek:
 - Kokapen-planoa, 1:5000 eskalan, finkaren egoera adieraziko duena, bide publikoak eta partikularrak ere aipatuz. Plano honetan orientazioa, lerrokadurak eta sestra ofizialak eta etxadiaren patio zentralaren perimetroa, horrelakorik balego, adieraziko dira, eta egungo eraikina aipatutako lerrokadura eta sestra horietara egokitzen den ala ez ere adieraziko da.
 - Aretoak egungo egoeran daukan oin-planoa 1/100eko eskalan, eraikinaren fatxada edo fatxadak eta beharrezko sekzioak eta zerbitzuen azpiegituren kokapena ere barne hartuz (ura, saneamendua, argindarra, telekomunikazioak, gasa, eta abar).
 - Aretoak berritu ostean izango duen oin-planoa 1/100 eskalan, eraikinaren fatxada edo fatxadak eta beharrezko sekzioak barne hartuz.
 - Aretoaren barrualdeko egungo egoeraren argazkiak, eta baita eraikinaren fatxadarenak ere.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek aretoak barnean etxebizitza bat hartzeko duen gaitasunari buruzko txostena osatuko dute, Ordenantza honen 3. artikuluan ezarritako irizpideak jarraituz.

Aretoak eskatutako baldintzak betetzen baditu eta aldeko txosten teknikoa jasotzen badu, Udal Dekretu bidez erabilera-aldaketarako baimena emango zaio, lortutako etxebizitzak izaera iraunkorarekin etxebizitza tasatuaren kalifikazioa izango duela aipatuz.

Aurreko hori halaxe egingo da, hirugarrenen eskubideei eta jarduera horrek jabetza horizontaleko tituluan eragin ditzakeen aldaketei kalterik egin gabe.

Onartutako erabilera-aldaketa baimenaren ziurtagiri administratiboa egingo da bere jabeak Jabetzaren Erregistroan inskribatu ahal izateko aurkeztu dezan.

4.2. Obra-baimena:

1. Etxebizitza berriaren egokitzapen-obretarako baimena erdiesteko honako hau aurkeztu beharko da:

- Jabetzaren Erregistroan eginiko inskripzioaren ziurtagiria.
- Onetsitako obren proiektu teknikoa.

2. Aldeko txosten teknikoaren aurretik, exekuzio epeak adieraziko dituen obra baimena emango da. Baimen hori eskualdatu egin ahalko da aretoaren jabetza eskualdatzen bada, jabetzarekin batera erabilera-aldaketarako baimenaren bidez eskuratutako eskubideak eskualdatzen direla ulertzen baita. Horretarako, bi alderdiek

(eskualdatzaileak eta eskuratzzaileak) udalari jakinarazi beharko diote, eta hori egin ezean jabeari dagozkion erantzukizun guztien menpe geldituko dira.

4.3. Lehen erabilerarako baimena:

1. Obra amaitu ondoren, lehen erabilerarako baimena eskatu beharko da, honako baldintza hauek bete direla egiaztatu eta gero emango dena:

- Onartutako proiektuan jasotako obren gauzatzea.
- Etxebizitzaren eta hiriko zerbitzu-sareen arteko konexioa egina egotea (ur-hornidura, saneamendua, energia elektrikoaren hornidura, gasa, eta abar).
- Obra baimenean ezarritako gainontzeko baldintzak betetzea.

2. Aurkeztu beharreko dokumentazioak gutxienez honako hau izan beharko du:

- Obraren amaierako ziurtagiri onetsia, Zuzendaritza Fakultatiboak izenpetua, obraren amaierako likidazioa barruan izango duena.

Obraren amaierako proiektu onetsia, udal-baimenari zegokion proiektuan adierazitako aurreikuspenen gainean aldaketak gertatu izan balira.

Hondakinen kudeaketari buruzko azken txosten onetsia.

Ur, argindar, gas, berokuntza edota telekomunikazio hornidura martxan dagoela egiaztatzen duen azken orri, dokumentu edo ziurtagiria.

Etxebizitza berriaren barrualdearen eta kanpoaldearen argazkiak.

Amaitutako eraikinaren energia efizientziaren ziurtagiria, hala badagokio.

Obra berriaren adierazpen-eskrituraren zirriborroa, udaleko etxebizitza tasatu iraunkor kalifikazioa eta udalaren alde lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea jasoko dituenak. Etxebizitzaren prezioa inoiz ez da Euskal Herriko legeriak jabari osoko etxebizitza tasatu autonomikoentzat ezartzen duena baino altuagoa izango.

- Baimenaren baldintzek eskatzen duten beste edozein dokumentazio.

4.4. Beste baldintza batzuk:

Urtebeteko epean obra amaitu, lehen erabilerarako baimena erdietsi eta etxebizitzara bizitzera etorri beharko da, obra-baimena ematen denetik zenbatzen hasita, obrak hasteko luzapen bat eman ezean.

5. artikulua. Etxebizitzen eskualdaketa.

1. Etxebizitzaren jabeak etxebizitza eskualdatu ahalko du.

2. Udalari etxebizitza besterenganatzeko erabakia jakinaraziko dio, horretarako dagokion salerosketa hitzarmena aurkeztuko du eta udalak 2 hilabeteko epean lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea erabili ahalko du.

Eskubide hori erabili ezean, eskuratzailleak tasatutako etxebizitza bat erdiesteko baldintzak betetzen dituela egiaztatu eta salmenta prezioa (4.3. art.) ziurtatu ostean, udalak hitzarmena onartuko du; hori gabe ezingo zaio dagokion salerosketaren eskritura publikoa eman eta ezingo da Jabetzaren Erregistroan inskribatu.

6. artikulua. Etxebizitzen alokairua.

1. Etxebizitzaren jabeak alokairuan jarri ahalko du etxebizitza baina urteko alokairua gehienez salmenta prezio altuenaren % 3 izango da.

2. Udalari jakinaraziko zaio etxebizitza alokatzeko erabakia, horretarako dagokion alokairu hitzarmena aurkeztuz, eta maizterrak etxebizitza tasatu batean sartzeko baldintzak betetzen dituela eta urteko errenta zenbatekoa den egiaztatu ostean, udalak hitzarmena onartuko du.

3. Udalak aipatutako baldintzaren bat ez dela betetzen ikusten badu, dagokion espediente zehatzailea ezarri ahalko du, arau-haustea larritzat jo ahalko da eta 1.500 €ko kopurura iristen den isuna ezarri ahalko litzateke.

7. artikulua. Etxebizitzen hartzaileek bete beharreko baldintzak.

1. Etxebizitza eskuratzeko edo alokatzeko aukera izan nahi dutenek Etxebideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena eman beharko dute, erosteko edo alokatzeko aukera hautatuz.

2. Aurreko betekizuna salbuetsita izango dute, bai erosketarako bai alokairurako, ezkontideek edo zuzeneko lerroan bigarren mailara arteko ahaideek (aitona-amonek, gurasoek, seme-alabek edo bilobek) edo zehar-ahaideek (anai-arrebek).

8. artikulua. Etxebizitza bihurtutako aretoen erregistroa.

Hirugarren sektoreko erabilera izatetik etxebizitzetarako erabilera izatera aldatzeko baimena eskuratu duten aretoen erregistro bat sortuko du udalak.

9. artikulua. Katastroari jakinaraztea.

Erabilera-aldaketa eskubidea gauzatu eta lehen erabilerarako baimena eman ostean, xehetasun hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Hiri-lurren Katastroari jakinaraziko dio udalak.

Azken xedapena.

Ordenantza honen indarraldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 5 urteko eperako izango da.

Epea amaitzean, indargabetutzat joko da.

I. ERANSKINA. Hirugarren sektoreko erabilera izatetik etxebizitza erabilera izatera aldatzeko aukera duten aretoen antolaketa planoak.

- ARAU SUBSIDIARIOAK: ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA, 34 AREA ETA 1 SEKTOREARI BURUZ. (2019IDBO0024)

Ondorengo proposamen berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, besteak beste, bi eremu hauek aurreikusten dira:

- **Dr. Fleming 34, area.** Hiri lurzoru finkatua da, 34.1 EU izan ezik. Kasu honetan finkatu gabeko hiri lurzorua da.

Area horretan 12 etxebizitza daude. Berrien aurreikuspena, 48koa da. Horietatik 31 libreak eta 17 babes ofizialekoak.

Babes ofizialeko 17 etxebizitzak Arizmendi, I Sektoreari dagozkionak dira, baina onartu zen eremu horretan ez egitea, ekainaren 30eko 17/1994 Legearen arabera.

Eremu honetan ezarrita dagoen baldintza ondorengoa da: babes ofizialeko etxebizitzak eta librean garapena aldi berean egitea eta guztien arteko bizigarritasuna bermatzea.

Egikaritze epea eta inizatiba: 4 urte eta pribatua.

- **Arizmendi, 1 Sektorea.** Lurzoru urbanizagarri sektorizatua da.

Sektorea dauden etxebizitzak 2 dira. Berrien aurreikuspena, 26 etxebizitza libreak.

Babes Ofizialeko (%65), etxebizitzak, Dr. Fleming 34, arean egingo dira. Salbuespena onartzen da, beti ere aipatutako arean egiten badira 17 babes ofizialeko etxebizitzak.

Egikaritze epea eta inizatiba: 6 urte eta pribatua.

II.- 2017-02-27an, alde zuzeneko ahozko eskaera pribatua izan da, Udalak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Zuzendaritzari kontsulta egin zion, 34 arean aplikatu beharreko etxebizitza babestuaren estandarri buruz, 1 sektorea desklasifikatu ezker.

III.- 2017-04-03ko erantzunaren arabera, 34 arean ez litzateke babes ofizialeko etxebizitzak estandarri bete beharrik izango, eraikigarritasuna aldatzen ez delako.

IV.- 2019-10-17an, Erregistro Orokorrean, AUSARTONDO, S.L.ren ordeztu, Jokin Errasti Arambarri jaunaren idatziak sarrera izan zuten, ondorengo eskatuz:

- AA SSen aldaketa puntuala izapidetu eta onartzea, atxikitzen duen planoaren arabera, Dr. Fleming, 34 Area eta Arizmendi, 1 Sektorearekiko.
- Udalak bere gain har dezan planteatutako AA SSen aldaketa puntuala, dokumentuaren idazlan gastuak eskatzailearen kontura izanik. Idazlanaz, Imanol Zabala Sarasola abokatuaren eta ARKITES, S.L. Arquitectura eta Urbanismo estudioak.

V.- Proposatzen den aldaketa, honetan datza:

- Arizmendi, 1 Sektorea, desklasifikatzea eta zoru ez urbanizagarria izatera pasatzea.
- Egungo Dr. Fleming 34, Arearen ordenazioa, aldatzea (aldaketak, ordenazio xehatua ere aurreikusiko luke).

OINARRI JURIDIKOAK

Legeri aplikagarria, ekainaren 30eko Hirigintza eta Lurzoruaren 2/2006 Legean jasota dago:

- 90. artikulua: Udalari dagokio plan orokorra egitea.

- 18. artikulua: "Hirigintzaren antolamenduak ez die lurzoruaren jabeek kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik ematen, legeak aurreikusitako kasuetan izan ezik eta herri-administrazioen ondare-erantzukizunaren araubide orokorrarekin bat etorritik betiere."

- Hainbat sententziek adierazten dute Egitasmoen aldaketa eta berrikuntzak, orokorrean, ez dutela kalteordainik izaten. Salbuespena da kalteordaina. Erantzukizuna egongo litzateke, ezarritako epea baino lehenago aldatzen denean, epea inplizituki dagoenean eta epea ezarri gabe dagoenean.

Kasu honetan, I aurrekarietan adierazi den moduan, epea ezarrita dago baina epe horiek erabat gainditu egin dira (AA SSak indarrean sartu ziren 2007ko azaroan). Aldaketa egitea EZ DA proposatzen ezarrita dauden epeek baino lehen.

Horren ondorioz, Lurralde Batzordeak Plenoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio (onartzeko gehiengo osoa behar da):

Lehenik. AUSARTONDO, S.L.ren eskaera onartzea eta horren ondorioz, Dr. Fleming 34, area eta Arizmendi, 1 Sektorearekiko Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala egitea. Dokumentuaren idazlanaz, Idazlanaz, Imanol Zabala Sarasola abokatu eta ARKITES, S.L. Arquitectura eta Urbanismo estudioa, arduratuko dira.

Bigarren Enkarguak, dokumentua fase guztietan idaztea eta udal teknikoekin elkarlanean, alegazio nahiz erreklamazioei erantzuteko txostenak egitean datza.

Hirugarren. AA SSen aldaketa puntualaren eta izapidetu eta onartzeko beharrezkoak diren beste dokumentuen idazlan gastuak, AUSARTONDO, S.L.ren kontura izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Por nuestra parte decir que es una pena que no se construyan las viviendas de protección oficial, ya que estamos a favor de que se promuevan más ese tipo de viviendas para que todo el mundo tenga acceso a una vivienda digna, pero si está dentro del marco legal no podemos hacer nada. También pensamos que la empresa promotora debería tener el compromiso para mejorar los accesos a Dr. Fleming, tanto por carretera como peatonalmente. Actualmente hay un acceso peatonal con escaleras y proponemos que se haga un ascensor, ya que es una zona de difícil acceso.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ahí se ha hablado con el promotor y en la anterior legislatura uno de los mayores problemas que se barajaban era el de las cargas de urbanización, tanto del área como del sector. Uno de los puntos en el que llegamos a un acuerdo, es la de mejorar la accesibilidad instalando un ascensor entre el Ayuntamiento y la promotora. Las viviendas ganan pero también los vecinos. Ese acuerdo apalabrado está. Respecto al primer punto que has comentado es el de si queremos comer al monte y que prevalezcan las 17 VPO de las que en un principio el área 34 estaba libre y correspondían al Sector 1. A nuestro modo de ver, el paso es favorable. Continuamente se habla de sostenibilidad y este tipo de acciones son las que dan credibilidad a que esa sea efectiva y que se coma al monte lo menos posible y a poder ser se construya en zona urbana.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu gai honi buruz esan, hasteko txosten teknikoa falta zaigula eta horrek argituko likugela sortzen zaizkigun zalantzak. Batzordean eman zaigun dokumentazioarekin eta lege ezberdinak kontsultatu ondoren zalantza batzuk sortzen zaizkigu: alde batetik prozedurarekiko, hots: Arau Subsidiarioen aldatetako HAPOan eragin zuzena du. Jo dugu “ordenación y planeamiento” urbanistikoaren Legea eta hor adibidez 108. artikuluan esaten du: “*El acuerdo municipal de inicio de la formulación o revisión de cualquier figura de planeamiento de ordenación estructural de deberá ir acompañado de un programa de participación ciudadana en el que según las características del municipio se establezcan los objetivos, estrategias y mecanismos suficientes para posibilitar a los ciudadanos y ciudadanas y entidades asociadas, el derecho a participar en el proceso de su elaboración*”. Hortaz, uste dugu legeak egiten duen aipamena prozedura honetan ez bada islatzen, ez dela abiapuntu ona. Proposamenean bertan formulazioa aipatzen da eta horrelako aldaketa egitea Egitasmo Orokorrerako behar den prozedura erabili gabe, gaizki egiten arituko ginateke. Gaizki ulertu ez badugu behintzat, Egitasmo Orokorrerako pauso berdinak egin behar dira eta prozeduran hutsune batzuk egongo liriateke. Askotan parte prozesuaz hitz egiten dugunean ematen du 8 hilabeteko prozesu bat egin behar dela, baina agian bilera batetara deitu beharko litzateke, planoak azaldu eta informazioa eman. Herritarrak etortzen badira ondo eta ez badira etortzen ba ez dira etortzen, baina Udalak konpromiso hori hartuko luke prozedura ondo eginda. Guk hutsune hori ikusten dugu, Legeak horrela jasotzen duelako. Hain zorrotzak izaten garenez legearekin, hori kontuan hartuko beharko litzateke. Atentzioa eman digu jartzen duelako, “*efectuar la modificación puntual*”. Agian da prozedura hori martxan jartzen dela.”

Idazkariak esan du Arau Subsidiarioekiko hainbat aldaketa puntualak egin direla eta horretarako sekula ez dela parte-hartze prozesurik burutu.

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk esaten duguna da aldaketa batek Egitasmo Orokorra egiteko prozedura berdina behar duela. Gure proposamena hori izango zen, herritarrei zabaltea. Beste zalantza desklasifikazioaren inguruan sortzen zitzaigun. Zuk Aitor aipatu duzu sektore hori desklasifikatzen denean, babes ofizialeko etxebizitza horiek egiteko derrigortasuna desagertu egiten dela. Aurreko gaiarekin aipatu dugun bezala, etxebizitza politikaren interpretazio bat izan daiteke eta borondate kontua ere bai. Uste dugu etxebizitzak eraikitzen direnean, gutxienez %20ak babes ofizialekoak izateko aukera dagoela. Orduan, ez dugu ulertzen eremu honetan ere ez den bultzatzen babes ofizialeko etxebizitzak egotea nahiz eta derrigortuta ez egon. Borondate politikoa egon ezker, lege barruan aukerak badaude hori bultzatzeko. Gainera Egitasmo Orokorra egiteko lanketan ere ez zen ikusten herria harantz hazte hori. Ez dakit jaso dugun HAPOan esandakoa. Zalantza sortu zaigu. Jasangarritasuna: ikusten dugu igeri leku bat duela, horrek suposatzen duen gastuekin eta baita ere mendia zulatu eta 69-70 aparkaleku sortzearekin, ez dugu ikusten bizi garen egoeran ez jasangarri honetan, horrelako eredu bultzatu behar dugunik, hau da, kotxeekin joan-etorria, ur gastua..., urbanizazio mota honekin ez zaio ematen lehen aipatu dugun etxebizitza politikari, ezintasuna dutenei irtenbidea ematearena, hain zuzen ere. Gaizki ez banabil, Etxebiden 45 eskaera daude etxebizitza erosteko eta 130 alokairurako. Udal honen lehentasuna izan behar du horri lehentasuna ematea, ez dakit aretoekin, 2. Etxebizitzekin, baina iruditzen zaigu honelako eremu batek ez duela asetzen beasaingarrek duten beharra. Beraz, ezezkoa bozkatuko dugu.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Prozedurari buruz esan, teknikoen eskutik joan garela prozedurarekiko. Beste afekzio batzuk baleude baina, harritu egiten nau mendian eraiki behar diren etxe batzuk ez eraikitzeagatik...Lurzoru hori desklasifikatzeak, eskubide batzuk ere sortzen ditu eta bideragarritasun kontuak ere badaude eraiki behar duenentzat. Etxebizitza Sailari ere kontsulta egin zaio egin nahi dena egin daitekeen jakiteko eta tiratu dezakegu ezer ere ez eraikitzerarte. Guri iruditzen zaigu oreka ematen diola eta kasu honetan oreka aldaketa honekin. Landa lurtean ez eraikitzea eta lehendik konpromiso batzuk hartuta zeuden etxebizitza politika beste bat zenean eta aldaketa honek aurrera pauso nabarmena ematen du, bai gure politikan eta baita ere herriarentzat. Etxebizitza babestuak bai, baina dena ez da hori. Horretara jo behar da baina oreka bilatu behar da.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Zergatik ez dugu apustua egiten babes ofizialekoak izateko?. Ez dugu ulertzen.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Lege bat dago eta lege horretan esaten da eremu bakoitzean zenbat etxebizitza babestuak eraiki behar diren. Ezin da nahi dena egin. Bestea da, Udala aberatsa balitz, Udalak lurrak balitu, etxebizitzak balitu eta bere politiko propioa eramateko aukera izatea edo Jaurlaritza aberatsa balitz, lurrak balitu eta etxebizitzak balitu, beste lurralde batzuetan pasatzen den bezala, alokairuan ateratzea, baina horretarako aurreeneko gauza da, jabea izatea. Hemen horrelako promozio batekin Udala deskapitalizatu egingo genuke edo arriskuan jarri. Ez da gure arazoa bakarrik, jabetza partikularra da. Puntu honetan denen gaintik dago, mendi lurtean ez dela eraikitzen eta hiri lur aldera pausoa ematen dela. Horrek noski, bere txertakak utziko ditu, kasu honetan aurretik konpromiso batzuk hartuta zeudelako.

Areak, berez ez zuen babes ofizialeko etxebizitzaren beharrik, Sektoreari zegokion. Beraz, jatorria bueltatu gara eta horregatik ekarri dugu proposamena.”

Mikel Olano jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Bai, baina horrek ondorio batzuk sortzen dizkigu, hau da, babes ofizialeko etxebizitzak horiek ez eraikitzearena.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Lehendabiziko ondorioa da mendiri ez diogula jaten.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai baina gu eremu horretan planteatzen ari garen etxebizitza libre horiek, planteatu dezakegu babes ofizialekoak izatea. Niri oso ondo iruditzen zait mendia ez jatea baina...”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ba ez du ematen. Kontrakoa iruditzen zait aurka bozkatzea eta alde zaudela esatea. Sektorea desklasifikatzen alde bazaude...”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Eremu horretarako planteatzen den ereduarekin ez gaude ados.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Beno balantzan jarri behar da eta bakoitzak defendatzen du berea.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hala ere ez zait garbi geratzen zergatik ez ditugun eremu horretan babes ofizialeko etxebizitzak bultzatzen.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Zergatik ez?. Eskubide batzuk dituztelako eremu horretarako jabeek. Urbanizazioa da kostu gehiena duena eta nahikoa kostatu da bideragarritasun batean sartzea etxebizitza libreak izanda ere. Denbora luzeko tira-birak izan dira eta onartu da. Bestea zen ez eraikitzea. Ez bada bideragarria inork ez du eraikiko. Horregatik esaten dut guri akordio egokia iruditzen zaigula.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 1 (EAJ-PNV)

Horren ondorioz, legeak eskatzen duen quorumarekin, hau da, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

4.- ALKATEAREN EBAZPENAK:

- 2019ko irailaren 23tik urriaren 26rarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira 2019ko irailaren 23tik urriaren 26rarte emandako Ebazpenak.

- 2019ko irailaren 23tik urriaren 26rarte kontratu txikiei buruz emandako ebazpenak.

- Ezagutzera eman dira 2019ko 23tik urriaren 26rarte kontratu txikiei buruz emandako ebazpenak.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

ZINEGOTZIEN SOLDATAK

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ez da pleno honi buruzkoa baina bai pendiente dugun gaia. Aitorri erantzutea da. Duela aste pare bat HITZAn egin zaizun elkarrizketa baten inguruan, aipatzen zenuen zure soldataren inguruan oposizioaren kritika jaso zenutela eta zuk egiten zenuen aitortza, nolabait ere, nahiz eta ordainsarien aurka bozkatu ez genuela uko egiten dietak kobratzeari. Zuri azaldu nahi dizuguna da eta, bide batez aprobetxatzen dugu denok hemen zaudetela, EH Bilduk bere finantziario guztia instituzioetatik jasotzen duela eta guk ezker proiektuaren apustuaren alde egiten dugunez, beste gizarte mota bat nahi dugulako, ulertzen dugu egitura sendo bat behar dugula. EH Bilduko egitura sendotzeko guk ez ditugu dieta pertsonalak kobratzen. Guk pertsonalki %20a kobratzen dugu. Zuek jakingo duzue zer kobratzen duzuen dietetan baina gure konpromisoa hau da eta koherentziaz hartzen dugu konpromiso hau. Beraz, ez gaude hemen irabazi ekonomiko pertsonalengatik. Gehiena nik kobratzen dudala esango nuke, 112,00 €, batzorde gehienetara ni joaten nahi zelako eta gutxiena kobratu duenak 62 € izan dira. Agian, koherentziaz eta kontraesanaz hitz egiten duzuenean, baloratu behar duzue zuen ekarpenak zeintzuk diren. Eskertuko nizuke horrelako adierazpenak egin behar badituzu, aurretik informazioa izatea eta ez agerian uztea norbaiten kontraesanak, zure kontraesanak agerian ez uzteko.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ni berretsi egiten naiz. Zuek dirua emango diozue ONG bati edo emango diozue zuen alderdiari. Hori historikoki pasatu da eta alderdi eta zinegotzi guztiok egiten dugu. Beste gauza bat da publikoki egitea edo ez, baina eman diogu gure alderdiari dirua. Diruarekin bakoitzak zer egiten duen bere kontua da. Niretzat koherentea ez dena da esatea astakeri bat iruditzen zaidala kobratzea baina nik kobratuko dut eta bete bati emango diot. Hori da egiten duzuen. Aurka egonda astakeri bat irudituta kobratzen dena, ez duzue proposatzen: “guk erdia kobratuko dugu” eta alderdiari emango diogu horren baitan. Niretzat kontraesana da aurka egitea eta berdina kobratzea. Bakoitzak diruarekin zer egiten duen bere kontua da. Niretzat ez dago kontraesanik.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Esaten zen moduan pertsonalki kobratzen ditugula ematen zuen. Horregatik nahi izan dugu azaldu duguna azaltzea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez da aldatzen. Zinegotzi, talde eta alderdi bezala kobratzen duzue, beste guztiok bezala. Pentsatzen dut beste guztiok, gu bezala, alderdiari diru bat ematen diozuela. Aurre iritziak beti dira aurre iritziak. Nik ez dut aurre iritziak hitz egiten.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ez dugu inolako arazorik esateko nora doan guk kobratzen dugun dirua. Azaldu nahi genuena da, horrelako aitorpenak egin baino lehen informazioa jaso behar dela.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez du kentzen. Berrito esango dut. Zuek zuen diruarekin zer egiten duzuen bigarren gauza da. Kontua da aurka azaltzen zaretela zerbait kobratzeari buruz, baina kobratu egiten duzue. Niretzat kontraesana hor dago.”

Nerea Manzidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk esan genuena zen prezioak desorbitatuak direla, bai dietena, bai alkatearen soldatarena. Hori erregulatzea zegoen prezio baxuagoak jarritz.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Baina horretarako aukera duzue. Proposamena egitea zeneukaten eta oraindik ere egin dezakezue esanez hori ez duzuela kobratu nahi. Astakeria da oraingoa baina kobratzeari ez diozue uzten.”

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo creo que en el momento en que votamos en contra ese día, todos expusimos nuestras razones. Nuestro argumento era por el incremento que se proponía y lo desproporcional que nos parecía. No creo que haya que darle más vueltas a ese tema, porque finalmente no se pudo hacer nada. No hemos hablado cómo cobramos como concejales porque también hay una desproporcionalidad en el número, pero eso es según la situación en la que estamos. Nonos vamos a poner a valorar eso porque ya disteis vuestra opinión.”

BERDINTASUN TEKNIKARIA

Bilerara etorritako herritar batek adierazi du jakin duela berdintasun teknikariari kontratua amaitu zaiola eta galdetu du ea orain zer gertatu behar den berdintasun foroarekin eta nor arduratuko den deialdiak egiteaz eta igortzeaz. Aipatu du 2012. urtetik aurrera teknikari horrek eten gabe lana egin duela gai horren inguruan eta publikoki eskerrak eman nahi diola bere izenean eta emakumeen berdintasun foroaren izenean ere bai. Orain arte egindako ibilbidea ezin dela etenda geratu, dio.

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “¿A partir de diciembre qué va a pasar?. El foro se convoca desde aquí. Los temas que se van a tratar en el foro los acordamos de un mes a otro. Tenemos la firme creencia de que el foro necesita continuidad porque aunque se hayan dado pasos en el tema de la igualdad, podríamos seguir hablando largo y tendido sobre el tema. Nos preocupa que no tenga continuidad y queremos saber si va a ser así o no.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “La relevancia que dimos a este tema en la anterior legislatura y la lucha a favor de la igualdad, nos llevó a contratar a una empresa para responder a esos temas. Estamos analizando cual es la forma administrativa adecuada para dar una solución a este tema. A poder ser de una manera más estructural. Estamos trabajando en ello y seguiremos dándole relevancia y dándole la importancia que a nuestro modo de ver tiene. Es verdad que se acaba el contrato, pero eso no impedirá que sigamos haciendo lo que hemos hecho hasta ahora.”

Emakumeen berdintasun foroaren ordezkariak galdetu du hemendik aurrera eraso bat dagoenean edota zerbait gertatzen denean norengana zuzendu behar duten.

Alkateak erantzun du esanez bideratuko dutela eta Udala jarriko dela harremanetan beraiekin.

Herritar batek galdetu du ea teknikorik egongo den eta Alkateak erantzun dio egongo dela. Lehen ere gai honi erantzuna eman zaion bezala, oraingoan ere emango zaiola esan du. Pertsona bat jarriko dela eta gaia ahalik eta txukunena eramaten saiatuko direla adierazi du.

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “Herritarrak aipatu duen bezala, guk gure aldetik ezinbestekoa ikusten dugu berdintasun teknikari bat egotea lehenbailehen. Esan duzue pausoak ematen ari zaretela hori lortzeko baina gure ustez berdintasun teknikari lanpostua izatea derrigorrezkoa izan beharko luke. Emakumeen berdintasun forokoek zalantza dute foroa nondik nora joan behar denari buruz eta guri ere zalantza hori sortzen zaigu, ematen diren tailerrak, ikastaroak etab., oraindik ere ez dutelako nahiz eta kurtsoa aurrera joan. Gustatuko litzaike jakitea noiz egin behar diren, nola, norekin eta martxan jarriko diren edo ez.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Berdin esango dut. Zuek 4 urte egin zenituzten udaletxean eta gu sartu ginen. Nik ez dakit..., arkitekto bat kontratatzea azkar egin zen baina berdintasun teknikaririk ez zen kontratatu lau urteetan. Gu sartu ginen eta kontratatu genuen beharra ikusten genuelako. Eskatzen dugu konfiantza hori. Lehen ere gu izan gara bidea eman dioguna horri eta esaten ari gara jarraipena emango diogula. Saiatuko gara ahalik eta txukunena izaten. Bere gabeziak izango ditu, noski, baina saiatuko gara guretzat ere egundoko garrantzia duelako berdintasunak.”

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “Baita berdintasun plan bai egin behar dugula. Berdintasun plan ez da errebisatu. Badakit orain ematen ari direla pausoak berdintasun plana egiteko baina egin beharra dago.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Oker ez banago 2015ean martxoan plana aurkeztu zen, lau urte ondoren gobernuan egon eta gero. Gure asmoa da, ikusita lana %85ean beteta dagoela eta Emakundeak ere bere planeko oinarriak aldatu dituela, iruditzen zaigu ezinbestean dela aldatu beharrekoa. Nire ustetan ezin duguna da lau urte plana egiten pasa. Egin behar duguna da plana lehenbailehen egin, ondo eta txukun egin eta noski, kontratatuko dugun pertsonak ere plan horretan zer esana izango du. Hala era guztiz ere ematen diren sentsibilizazio kanpainetan, plana egon edo ez, lanean jarraitu behar dela. Ezin dugu soka eten.”

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “Horretarako ere, berdintasuna plan egiteko berdintasun teknikaria behar da eta ez alderantziz.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Orduan trukoa esan beharko diguzu nola aprobatu zenuten aurreko legegintzaldian plana teknikaririk gabe. Esaten du, badaezpada, teknikaria iristen ez bada ere, ez uzteko planik gabe.”

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “beno, nik esaten dut eman behar diren pausoak. Bestalde, hau herritarren batzordean tratatzen da eta ez daukagu inolako arazorik bai Ametsekin eta bai Elenarekin biltzeko, izan ere askotan bildu gara gai honekin. Azken proposamena berdintasun plan berria lantzeko udal talde guztiak biltzea da, gure ustez antolaketa berri honen gabeziak ageriak geratzen direlako. Gure iritziz beste batzorde bat eratu beharko litzateke berdintasun

gaietarako nahiko konplexua delako. Herritar batzordean bederatzi sail txertatuta daude eta batzordean ematen diren pausoak denborarik gabe eta presaka ematen dira, gai pila daudelako.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Antolaketa berriak lan taldeak ere aurreikusten ditu eta horietan gai monografikoak landu daitezke. Berdintasuna horrelako gai bat izan daiteke. Batzordeetan epe mugarik ez dago eta horren ondorioz, harritzen nau orain hori esatea, batzordeetan entzuten denean: *guk, gure iritzia plenoak emango dugu*. Nik ez dakit batzordeetan zein gogo egoten den eztabaidatzeko. Iruditzen zaigu, eztabaidatzeko ere inoiz baino baldintza hobeagoak ematen ari direla, zeren eta debatitzeko lehenik eta behin zerbait behar bada, informazioa da. Nik uste dut formazioa ahalik eta txukunena ematen saiatzen ari garela eta hori izatea oinarri gure eztabaidetako. Monografikoa horietan gaiak landu beharko liriteke, ondoren batzordeari proposatzeko eta plenora eramateko. Ez zait iruditzen gune horiek falta direnik, sortu egin behar dira.”

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “Beno, orain nahi dugu berdintasun plan landu, orduan zure ustez hori ez da batzordean tratatu behar? Aparte tratatu behar da?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez noski, pasatu beharko da batzordetik baina landutako proposamena. Zuk landu dezakezu teknikoekin edo politikoen artean. Orain arte funtzionatzen zen bezala zen, bidaltzen zen dokumentazio guztia eta 48 ordu zeuden irakurtzeko eta batzordean iritzia emateko. Gero plenoa pasatzen zen. Prozedura hori ez da moztzen, kontua da lanketa, non eta nola egiten den. Nik hor ez dut arazorik ikusten.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Aurrekoan ere aipatu genuen. Ba daude gai batzuk, adibidez lurraldeko proposamenak (gaur tratatu ditugunak), ziurrenik beste batzorde batetik pasatu izan baziren, genituen zalantzak argitzeko eta adostasun batera iristeko, aukera izango genuke gure jarrera beste bat izateko. Baina orain dela astebete batzordea izan zen, han informazioa jaso genuen, (ze dokumentazio hori guztia bi egun lehenago jasota..., gu ez gara arkitektoak) eta astebeteko epean pleno batetan aurkitzen gara gure jarrera azaldu beharrekoa. Ba daude gai batzuk batzorde gehiago beharko lituzketenak informatzeko eta jakiteko. Aurrekoan ere beste gai batekin berdina aipatu genuen. Guri etengabe gertatzen zaizkigu horrelakoak. Ez daukagu denborarik.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik harritzen nauena da, teknikarien atea irekita egonda, teknikariarengana ez jotzea galdetzeko.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk galdetu behar izan duguna galdetu dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez dakit, plenoa etorri eta hemen galdetzea. Teknikoak egonda, aurretik hainbat gauza argitu dezakete. Prozeduran gu ere ez gara adituak!. Guk saiatzen gara aurrera eramaten markatzen zaizkigun prozedurak.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hau ere izango da ba eztabaidetarako gunea?. Zertara gatoz bestela, bakarrik bozkatzea?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez nik ez dut hori esaten, baizik eta esan dudana da teknikarien ateak irekita daudela zalantzak argitzeko. Etorri egin behar da eta galdetu. Besterik, ez da.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Argi azaldu nahi duguna da, askotan somatu dugulako gaiak lantzeko batzorde bat izan ordez, agian bi batzorde behar direla, segun eta zein gaietan.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Baina batzordeak badaude eta batzordeetan gai hauek ateratzen badituzue, pentsatzen dut ez dagoela inolako oztoporik gai horietaz hitz egiteko. Edo norbaitek esaten dizue, batzordeetara etorri bakarrik zuen sinadura botatzea?. Hemen gaia ateratzen duzuen bezala, han atera. Horren ordez esaten duzue, zuen iritzia plenoan emango duzuela. Debatea, orduan mozten da. Prozedura arazo bat badago, prozedura ere han galdetu daiteke. Hura izan daiteke bidea oker egiten ari den zerbait edo hobekuntza behar duena konpontzeko.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guri aste honetan sortu zaizkigu prozedurari buruzko zalantza horiek!. Gai horrekin eta gai askorekin. Berdintasunarekin berdín, guk ez dugu inolako arazorik edozein forotan parte hartzeko, baina horrek, agian, begien bistak gabezi batzuk uzten digu. Agian ez dugu ondo funtzionatzen edo herritarren batzordeak hilerok bi batzorde izan behar ditu gai pila direlako eta ezin ditugulako gai horiek guztiak benetan tratatu. Beste gauza bat da nahi dugun batzordea horretan bihurtzea, hau da, hauek dira gaiak, bozkatzen ditugu eta bagoaz. Gure joango gara ikasten, teknikariengana joaten eta erritmoa hartzen baina askotan azkar egitea da eta guk hori ez dugu partekatzen.”

Tratatzeko beste gairik ezean bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.